



BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 212. alea - 2016ko azaroa



**Martxan da
Debasket
Saskibaloi Kluba**

G



JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afarriak: 20:00 / 23:00

Bordatxo
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

50 URTE

BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gaufan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

kutxabank
hemen
eta orain **k**

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

Hazirik
ZUIRE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tel.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea . 20820 DEBA
943 029 186

MAZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín Larranaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

sasoiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapiak: teknarterapiak (INDIVA)-drenaje linfatikoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotnail.com

AURKIBIDEA

07

AZAROAK 25

Azaroaren 25aren bueltan egindako ekimenak; Gure Balioak Saria Nerea del Campori



09

KULTURA

“Itsas ertzeko euskal doinuak” proiektua, Tene Mujika lehiaketa, Animadeba...



10

ERREPORTAJEA

Debasket Saskibalo Kluba sortu da herrian. Proiektua ezagutu nahi izan dugu



13

LABURRAK

Zuhatza Elkartearen gogoeta prozesua, Debalaren bonoak, zabor tasen igoera...



14

B. GAZTEA

Irakurketa Plana abiatu da Mendatan, Mireia Lili kirolariari elkarrizketa, inkesta...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietta, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Ander Salegi

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83


Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri **Tirada:** 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009 **ISSN** 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide ha

Zorionak, Atxa!

Aurtengo azaroaren 28an, Mikelek (Atxak) 49 urte egin zitzakeen.

Ez dakit zer esan. Ordenagailuaren aurrean, ez zait hitzik irteten. Bakarrik esan dezaket bere irudia nire aurrean daukadala. Gauetan zerura begiratzen dudanean, izar distiratsu bat nabaritzen dut besteen artean. "Hori Atxa da", esaten diot nire buruari.

Gure laguna izan zarelako, eskerrik asko. Bihotz onekoa izan zarelako, eskerrik asko. Beti leialtasunez jokatu duzulako, eskerrik asko.

Eta zorionak!!!! Hau dena eta gehiago izan zarelako.

Besarkada bero bat,



Marian Larrañaga

Zuretzako:

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean noizpait giñaden gu ernai.

Eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe: lana egiñaz goaz aurrera
kate horretan denok batera gogorki loturik gaude.

Gizonak ba du inguru latz bat menperatzeko premia,
burruka hortan bizi da eta hori du bere egia.

Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu,
jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu
lege berriak noizpait erditu, hortan jokatzuz bizia.

Gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea,
naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea.

Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz,
bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz,
ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea.

Ez dadukanak ongi ohi daki eukitzea zein den ona,
bere premiak bete nahirikan beti bizi da gizona.

Gu ere zerbait ba gera eta gauden tokitik hemendik bertan
saia gaitezen ikusten: amets eroak baztertuturikan,
sasi zikiñak behingoz erreta bide on bat aukeratzen.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak,
burruka hortan iraungo duten zuhaitz-ardaska gazteak.

Beren aukeren jabe eraikiz ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak: gertakizunen indar ta argiz
gure ametsa arrazoi garbiz egiztatuko dutenak.

Eta ametsa bilakaturik egiaren antziduri
herri zahar batek bide berriket ekingo dio urduri;
guztien lana guztien esku jasoko dute sendo ta prestu,
beren bizitzen edergai; diru zakarrak bihotzik eztu,
lotuko dute gogor ta hestu haz ez dadin gizonen gain.

Xabier Lete

Erabakitze goaz

Bagoaz. Izenetik hasita, erabakiz goaz. Izan ere, ERABAKITZEKO ESKUBIDEA egikaritzeko taldea jaio da Deban. Izen baten beharrean zen, eta herritarrongana jo genuen haren bila, herriko hainbat txokotan zuen proposamenak jasotzeko kutxak utziz. Zuen laguntzari esker, aurkitu du behar zuena. LAPARI hasi da lehen pausoak ematen.

Azaroaren 27an egin zuen aurkezpena taldeak, herritarroz inguratuturik eta musika lagun. Mila esker honetan



lagundu zeniguten talde, eragile eta norbanako guztiei. Bertan adierazi bezala, dugun helburua herritarron artean galdera adostea eta galdeketa egitea da, era irekian eta ahalik eta parte-hartze zabalenarekin. Egun horren antolakuntzan parte hartu nahiz gero ongietorriak zarete.

Azkenik, herritar guztiak gonbidatu nahi zaituztegu LAPARIIn zuen hondar alea jartzera.

ERABAKITZERA GOAZ!

LAPARI- Erabakitzeko eskubidea egikaritzeko taldea

Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko.
Aretara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

EAEko Auzitegi Nagusiak atzera bota ditu Gora Deba taldearen helegitearen argudio juridiko guztiak

Errespetuan oinarritutako etorkizun amankomun baten alde lan egiteko garaia da

Azaroaren 8an argitara emandako sententzian Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak atzera bota du orain dela bi urte Itziarko Auzo Udala arautzen duen foru dekretuaren kontra Gora Deba taldeko hiru herritarrek jarritako helegitea.

Epaian ez dira aintzat hartu Debako hiru herritarren izenean aurkeztutako argudio guztiak. Alde batetik, epaiak dio Itziarko eremu desberdinek lurralde kohesioa duten gunea osatzen dutela, Debako hirigunetik bereizten dituen. Bestetik, nagusiki nabarmendutako lurralde mugaketa afera errakuntza tekniko soiltzat jo du. Era berean, epaiak dio Itziarko Auzo Udalak Debako udalerriarekiko ez duela kalte ekonomikorik eragiten. Bestelako argudioak ere, banan-banan, oinarririk gabekotzat jo ditu epaitegiak.

Orain arte jorratutako bidea berresten du epaiak eta zilegitasun osoa ematen dio antolaketa eredu berriari. Aurrerapauso

bat gehiago da eratutako Itziarko Entitate Txikiaren errealitatean.

Balitzko usteak eta aurreiritziak alde batera utziz, zatiketa soziala gainditzeko unea da, gizarte pedagogia sustatuz berdintasun eta errespetuan oinarritutako etorkizun amankomun baten alde aurrera egiteko.

Erabakitze eskubidearen koherentzian, eta aspalditik datozen gatazkaren irtenbide gisa araudiak ezarritako pauso guztiak emanez modu zuzenean erdietsitako herri antolaketa epe motzeko interesen baitan instrumentalizazio politikorako baliatzea, ez da bidezkoa.

Honen bitartez dei egiten diogu Debako Udal eta herritargoari, Itziarko Auzo Udalari legez dagokion aitortza eman eta normaltasunetik elkarlanaren bidean aro berri bat abiatzeko.

Itziarko Auzo Udalaren Talde Eragilea

Mintzalaguna egitasmoan izena emateko garaiz zabilta!

“Konturatzeko Euskaraz”. Lelo horrekin abiatu da aurtin Mintzalaguna egitasmoa Euskal Herriko hamaika herritan, baita Deban ere.

Euskaraz hitz egiteko erraztasuna dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzeko programa da Mintzalaguna. Hori hala, mintzalagunek, batetik, beren hizkuntza gaitasuna hobetzen dute, hizketarako jariotasuna lortu eta lotsa galduz; eta bestetik, inguruko euskaltzaleei euskaraz bizitzen laguntzen diete, euskararen aldeko ekarpena eginez.

Euskara hobetzeko, gehiagotan erabiltzeko, euskaraz bizitzeko, normalizazioaren alde egiteko, ingurune euskalduna sortu, indartu eta zabaltzeko... helburua du egitasmoak eta Deban Zuhatza Euskara Elkarteak kudeatzen du. Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babesten dute ekimena, eta euskaltegiaren eta

mintzalaguna.

KONTURATZERAKO

EUSKARAZ



EMAN IZENA!
Ahaiztutako hizkuntza freskatzeko,
jende berria erasgutzeko,
datorren hitz egiteko.
Beste bizitzari hori guretzat egiten laguntzeko,
nahi duzunarekin, baino gazteagor.

Topagunearen laguntza ere badu.

Egitasmoan parte hartzeko baldintza bakarrak euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez batzeko konpromisoa hartzea dira. Animatuko zinateke zeu ere mintzalagun izatera? Eman izena!

Matrikulazioa abian dagoela eta doakoa dela gogorazi nahi dizugu lerro hauen bitartez. Egitasmoaren nondik norakoez informatzeko edota izena emateko **bilera bat egingo dugu abenduaren 2an**, arratsaldeko 18:00etan, Zuhatza elkartearen bulegoan. Bertan zehaztuko dugu ikasturte honetako

funtzionamendua.

Zatoz zu ere! Eman izena!

Zuhatza Euskara Elkarte



MATTIN URBIETA

Ereduez

Hedabideetan azken egunotan zalaparta pixka bat sortu da youtuber estatubatuar baten harira. Irakurtzen duzueneko iraganeko kontua izango da. Youtuber bat, ez dakienarentzat, Youtube webgunean kanal bat duen pertsona bat dela esan liteke, zeinak bideoak igotzen dituen bertara eta milaka jarraitzaile izan ohi dituen. Kasu honetan, youtuber honek ia milioi bat jarraitzaile ditu, gehienak nerabeak eta modaren inguruko *aholkuak* ematen ditu. Zer dela eta sortu da zalaparta, ordea? Bada, pertsona honek, heldua izanagatik, 27 kilo pisatzen ditu, hezurretan da. Motzean, anorexia du. Eta zenbaiten ustez, Youtube webguneko arduradunek kontua itxi beharko liokete, jarraitzaile asko adingabeak izanik, beraiantzat eredu arriskutsua dela argudiatuz.

Eredu arriskutsuak, Amerikako Estatu Batuetan deman dabilzanak. Lerrook idazten ari naizen honetan, oraino ez dute aukeratu estatubatuarrek beren gobernuburua. Bi baino gehiago lehiatuagatik, buruz buruko guda. Eta gero hemen bipartidismoaz kexaka. Bien artean ezberdintasunak izanagatik, arriskutsua bata zein bestea. Bien eredia, kapitalismoa, ñabardurekin. Hango ekaitzetik alga umel eta haize hotzak baino zerbait gehiago iritsiko dira gure itsasertzera.

Ikusi beharko da TTIP-aren (*Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena* euskaraz) inguruan zein jarrera hartzen duen aukeratua suertatzen denak. Ikusi beharko, horrenbeste antzerkiren atzean zer den. Ereduetan aparteko alderik ote den. Bata ala bestea izan, gudan eraginik ez duela izango uste duena itsua litzate-

ke. Eta langilea izanik, bere eredia horietako bat dela sinesten badu, onerako izango dela uste badu, inozoa dela esango nioke. Kapitalismoa langilearen etsaia da, gogoratu. Akaso itsu izateaz gain, hauen memoria paper zuriz beteriko liburu bat da, eta egunetik egunera erauzten ditu eguneari zehar idatzitako orriak. Ez dira Urriko Iraultzatik 99 urte alferrik betetzen gaurko egunez.

Norberaren eredu direnak aldatu egin ohi dira denborarekin, egia da. Duela zenbait urte "Nuklearra? Ez eskerrik asko" zioten zenbaitek, orain "Erraustegia? Bai eskerrik asko" diote. Ondorengo erantsita: "Bai, baina nire etxetik urruti". Eta hala izanik, erraustegiaren keak akaso ez dira hona iritsiko. Baina sosak bai doazela hemendik. Zabor poltsetan sartuta. Al Capone eta enparauek estiloa bazuten, behintzat.

Gure hondakinak ez dituzte trenez bidaliko. Are gutxiago AHTaren bagoietan kargatuko. Zorionez ez da gure herritik igaroko. Zorionez. Zoritxarrez, beste herri askotatik pasako da. Baina ez da geldituko. Aurreko hilabeteko alean Nekane Goikotxeak aipatu bezala, Euskal Hiria

baita hemen eredia.

Gurera etorrita, uda igaro da, eta negua iritsi da. Udan, kanpora begira, aise. Hormak zuri, eta loreak koloretsu. Trenak gainezka datoz, eta etxeetako gelak betetzen dira. Eta neguan...

...neguan badoaz. Gelak hutsik, hormak zuri, eta loreak lehor. Tanatorio bat bailitz. Erraustegia soilik falta zaigu bertan krematorioa izateko.



Dokumentala, Beldur Barik lehiaketa, elkarretaratzea... azaroaren 25aren harira

Azaroaren 14an abiatu ziren Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren bueltan Deban aurten antolatutako ekimenak. Udaleko Berdintasun Sailak eta Dunamis elkarteak prestatutako egitarauari hasiera emateko, “Él nunca me pegó” dokumentala proiektatu zuten Agirre jauregiko ispiluen gelan. “Indarkeria psikologikoa maitasun erromantikoaren eremuan” gaia du hizpide laburmetraiak eta hogeita bost bat lagun bildu ziren hura ikusteko. Proiektzioaren ostean, eztabaida edo solasaldia egin zuten, Irantzu Varela Urrestizalak gidatuta; dokumentalaren egile eta zuzendaria da, baita Faktoria Lila elkarteko kidea eta kazetaria ere.

Azaroaren 20an, igandea, Beldur Barik Topaketarekin eman zitzaizen jarraipena aurtengo ekimenei. Beldur Barik lehiaketaren sari banaketa ekitaldia eta ondorengo luncha izan ziren Agirre jauregian. Aurtengo lehiaketara lau lan aurkeztu dira Deban, guztiak lehenengo kategorian (12-17 urte bitarteko gazteek eginak), eta lehen saria “Egia ote?” izenburukoak lortu du. Bigarren saria “Batera” lanari eman diote. www.beldurbarik.org atarian ikus daitezke lan guztiak.

Bestetik, urtero bezala, azaroaren 25erako emakumeengana indarkeriaren aurkako agerraldia deitu zuten Foruen plazan. Eta, egitarauari amaiera emateko, “Sex o no Sex” hel-



duentzako antzerki emanaldia eskaini zuen Virginia Imazek (Oihulari Klown) Agirre jauregian.

Gure Balioak Saria, Nerea del Campo Agirre eibartarrantzat

Nerea del Campo Agirre eibartarrak jaso du aurten Gure Balioak Saria. Genero indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzeko “Mujeres al Cuadrado” elkartearen fundatzailea da eta emakume etorkinen ahalduntzea helburu duen “Empalabramiento” egitasmoaren sortzailea eta arduraduna.

Enpresa, kultura eta arlo sozialean diharduten Debarreneneko 9 lagunek osatutako epaimahaiak Del Camporen “ekimena, ausardia eta egoera zailak gaitzeko indarra” nabarmendu nahi izan ditu, “bizipen pertsonal gogor batetik abiatuta, indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko konpromiso sozialean eta elkartzunean oinarritutako proiektua sortzeagatik”. Eibartarraren “paper aktiboa eta ahalegina” ere azpimarratu ditu, “genero indarkeria jasan duten emakumeen errealitatea ikusarazteko, ez biktima gisa, bizirik iraunaraztea lortu

duten eta indarkeriarik gabeko etorkizun berri bati aurre egiteko gai diren emakume ahaldundu gisa baizik”.

Era berean, epaimahaiak kontuan hartu du jatorri edota kultura arazoien-gatik egoera bereziki ahulean dauden emakumeekiko “inplikazioa eta konpromisoa”, “Empalabramiento” eskolen bitartez euren trebakuntza, integrazioa eta ahalduntzea ahalbidetuz, horretarako bere denbora, esfortzua eta ezagutzak modu altruista batean eskainiz. Del Camporen “gizatasuna” ere goraiatu du epaimahaiak.

Nerea Del Campo Gure Balioak Saria jaso duen zazpigarren pertsona da, 2010ean Debegesa agentziaren ekimenez eratu zenetik. Sari honek Debarrenen gizarte balioen sustapenean nabarmendu den pertsona publikoki aitortzea du helburu.



Nerea del Campo, Juan Luis Boroja Collet artistaren eskulturag batekin sari banaketa ekitaldian.

Ekaingo haitzuloa, pantailaren beste aldean

Kobako margoak digitalizatu eta webgune batean jarri dituzte ikusgai



Ekain kobazuloko margoak digitalizatu eta irudi horiek ikusgai jarri ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Paleolito garaikoak dira margolanak, orain dela 14.000 urte inguru margotutakoak, eta Madpixel enpresak “erresoluzio altuan” digitalizatu ditu orain. Hortaz, herritarrek Ekaingo labar-arte pixka bat hobeto ezagutzeko aukera izango dute aurrerantzean. Webgune berezi bat sortu dute horretarako eta dagoeneko martxan dago (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/ekain/>). Gainera, smartphone eta tabletentzako (iOS eta Android) aplikazio bat ere sortu dute. Webgunea eta aplikazioa lau hizkuntzatan egongo dira

erabilgarri: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.

Ekain kobazuloa 1969an aurkitu zuten Azpeitiko Antxieta espeleologia taldeko kideek. Bere kontserbazioa bermatzeko, haitzuloa bisitarientzat itxita dago harrezkero eta UNESCOk 2008an Munduko Ondare izendatu zuen. Haren erreplika Ekainberrin badago ere, bere jatorrizko artelanak ezin izan dira bisitatu gaur arte. Orain, gutxienez, margoen bertsio digitala ezagutzeko aukera eskaintzen da.

Digitalizazio proiektua urriaren amaieran aurkeztu zuten Joxean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak, Koldo Garcia Madpixel enpresako

kideak, Marcos Garcia EHUko irakasleak eta Jesus Altuna labar-artearen kontserbazio arduradunak.

Haiek jakinarazi dutenez, kobako margo guztiak ez dituzte digitalizatu, “baina haitzuloko multzo handienak, tartean hain berezi diren zaldiak adibidez, ikusgai daude dagoeneko”, baina kobako gune nagusien 360º-ko ikuspegi interaktiboak ere.

Digitalizazio lan hori egin ahal izateko, Madpixel enpresak Art Gigapixel teknologiaren egokitzapen berezi bat egin behar izan du, “haitzulo barruko irudi-hartualdien beharretara” egokitzeko eta koban ahalik eta eraginik txikiena izateko.

Aitor Oñederraren “I said I would never talk about politics” film laburrak Goya sarietan lehiatzeko aukera du


Espainiako Zinema Akademiak 33 film labur hautatu ditu otsailean banatuko diren Goya sariei begira egindako lehen aukeraketan eta horien artean dago Aitor Oñederra zinemagile debarraren laburmetraia.

Animaziozko hamar lan, zortzi dokumental eta fikziozko hamabost film labur aukeratu dituzte Akademiaren zuzendaritza batzordeko kideek. Zerrenda osoa urriaren amaieran iragarri zuten eta lan horiek ikusi eta Goya sarietan horietako zeintzuk lehiatuko diren erabakitzea dago orain Espainiako Zinema Akademiako

kideei.

Aitor Oñederrak ez daki oraindik bere laburmetraia 2017ko Goya sarietarako lehian egongo ote den, baina Akademia espainiarrak egindako lehen aukeraketan presente egotea bada, berez, bere lanari aitortza egitea.

Aurrez ere “I said I would never talk about politics” filmarekin hainbat sari eta aipamen berezi lortu ditu Oñederrak, beste hainbeste zine jaialditan (bai Euskal Herrian eta bai kanpoan). Hilabete honetan bertan Ipar Karolinako jaialdi batean ere proiektatu dute.





Itsasertzean kantari

150 bat lagunek bat egin dute azken asteotan "Itsas ertzeko euskal doinuak" izeneko proiektuarekin.

AME estudioak herriko hainbat eragileri aurkeztutako proiektua da "Itsas ertzeko euskal doinuak" eta Deba, Mutriku, Ondarroa eta Lekeitioko hiruna abestirekin CD bat argitaratzea du helburu. Horretarako, herri bakoitzak hiruna abesti aukeratu ditu (herri bako-

tzarekin nolabaiteko lotura dutenak); Debaren kasuan, "Itsas ertzeko", "Debako herri maite" eta Debako Martxa.

Koru eta kantu taldeez gain gainerako herritarrek ere parte hartzea bilatu nahi zuten proiektuaren arduradunek eta Deban erantzun beroa eman zitzaion deialdi edo proposamen horri, goiko argazkietan ikus daitekeen bezala. 150

bat abeslari bildu ziren guztira.

Egitasmoaren berri irailan izan ostean, parte-hartzaileek abestiak ahalik eta txukunen grabatu ahal izateko entseguei ekin zieten eta dagoeneko eginak dituzte grabazio lanak ere -azaroaren 12an bildu ziren kantariak Agirre jauregian-. Orain, grabazio lanak amaituta, AME estudioak CDa noiz plazaratuko zain egon beharko dugu (Santo Tomas eguna izan liteke).

Tene Mujika bekarako lanak aurkezteko epea abenduaren 11n amaituko da

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak hamaikagarrenez antolatu dute Tene Mujika beka, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaldu eta euskal literatura aberasteko helburuarekin. Gure herriaren azken 70-60 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburuak egiteko proiektuak aurkez litezke: biografiak, kronikak, erreportajeak, saiakerak, elkarrizketa, ikerketak.... Lanak jato-

rizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du, aurrez argitaratu nahiz saritu gabea. Ez da fikziorik onartuko baina bai materialaren lanketa literarioa, idazleak hala nahiko balu. Dibulgazio-lanak bezala egin litezke ikerketak, baina ez espezialistentzat bakarrik idatzitakoak.

Proiektuak aurkezteko epea abenduaren 11n bukatuko da. Oinarriak www.deba.eus atarian kontsultatu daitezke.

Abian dago Animadeba Gortina lehiaketa

Gortina lehiaketaren VIII. edizioa antolatu du Debako Udalak eta lan sari-tua Animadeba 2017 animazio zinema jaialdia iragartzeko erabiliko da. Nahi duenak parte har dezake lehiaketan, eta nahi adina gortina aurkez daitezke, edozein teknika erabilia. Beharrezkoa izan-

go da, hori bai, lan guztiek Animadeba 2017ko logotipoa edukitzea. 700 euro eta oroigarria daude jokoan. Lanak aurkezteko epea abenduaren 9an amaituko da (14:00etan). Lehiaketaren inguruko informazio gehiagorako jo Debako Udaleko Kultura Sailera.



Debasket Saskibaloi Kluba



Uda hasieran gazte batzuen ilusioa baino ez zena errealitate bihurtu da orain. Saskibaloi talde berria martxan dago herrian. Poliki-poliki forma hartzen ari den proiektu ireki eta herritarra da Debasket Saskibaloi Kluba, eta bidea egiten jarraitu ahal izateko herritarren babesa beharko du. Orain arte egindakoa eta aurrera begirako erronkak ezagutu nahian, klubeko hiru kideekin aritu gara solasean.



Ikasturte berriarekin batera indartu egin da Debako kiroldegiko jarduerak ostiral arratsaldeetan. Herrian berriki sortu den saskibaloi taldearen entrenamenduak izaten dira bertan. 17-43 urte bitarteko hogeitaz lagun biltzen dira ostiral arratsaldero, baita 9-13 urte bitarteko beste hamabost gaztetxo ere.

Taldea sortu eta funtzionamenduan jartzeko orduan herrian izan duten "harrera bikainarengatik" pozik daude Debasketeko kideak. Roke Arantzamendi da taldea sortzeko ideia bultzatu zutenetakoa bat eta berak dioenez, "herritar askok zoriondu eta komentatu digute bazela ordua herrian futbolaz gain beste kirol bat izateko".

Uda partean BorBor garagardo baten bueltan "egosi" omen zen saskibaloi taldea sortzeko ideia. "Ostiral batean hiru lagun garagardo bat hartzen ari ginela konturatu ginen hainbat herritar kanpogan ari zirela jokatzeko eta orduan planteatu genuen ea zergatik ez Deban sortu taldea", dio Arantzamendik. Ideia hari tiraka, festetan gazteen artean deialdia zabaldu eta saskibaloia gustuko duten hainbatek, proiektuari forma pixka bat emateko asmoz, "pausoz pauso" joatea erabaki zuten.

Erabaki eta egin, beraz. Kirol arloko arduradunetako bat den Eñaut Mugarzak esan bezala, "oso pozik gaude, kontuan hartuta uda hasieran zenbait gazteren ilusio irreal edo utopikoa zela. Dagoeneko asteroko bilera eta entrenamenduetan lagun askoren parte-hartzea lortu da eta hori oso berri pozgarria da".

Pozik dago Iñigo Jimenez jokalaria ere. "Herriko gazteek, beste herrietara joan gabe, orain herrian bertan gustuko duten beste kirol bat praktikatzeko aukera dute".

Herritarrei irekia

Herritarrentzako bilera ireki bat egin zuten irailean -ideia nondik zetorren, asmoak, helburuak, zalantzak... hizpide hartuta-. Eta gero etorri zen taldea izen batez janzteko urratsa. Herritarrek hautatu zuten Debasket, bozka bidez, haien iritzia kontuan hartu nahi baitzuten arduradunek. "Proiektu herritarra izatea nahi dugu. Gazte talde batek abiatu badu ere, ez dugu proiektu itxi bat nahi. Herriarena izango den proiektua nahi dugu, herritarrek eginga herriarentzat, bestela arriskua dago urte gutxitan bertan behera geratzeko", dio Arantzamendik.

Oraingoz bi saskibaloi talde sortu

dira: umeena (9-13 urte bitartekoak) eta nagusi edo seniorrena (17-43 bitartekoak). Baina proiektuak etorkizuna izan dezan, umeentzako eskola sortzeko apustua ere badute.

Gizonezkoak dira orain arte taldean izena eman duten kirolari gehienak. Bi neskato daude haurren taldean. "Ez da gehiegi, baina berandu ibili gara umeen taldea sortzeko orduan eta gehienek jada antolatutako zituzten beraien eskolaz kanpoko ekintzak -argitu dute-. Nagusiei dagokienez, pena da oraingoz emakumerik agertu ez izana, baina gonbidapena luzatzeko eta ateak irekita dituztela esateko baliatu nahi dugu elkarriketa hau".

Jimenezek eta Mugarzak dioten bezala, alegia, emakumezkoek saskibaloian aritzeko aukera guztiak dituzte. "Nagusien kasuan ez dizkiogu ateak ixten emakumeen talde bati, baina oraingoz ez da inor agertu".

"Poliki-poliki" forma hartzen ari den proiektu irekia da Debasket. Ateak irekita daude edonorentzako eta taldean parte hartzeko modu ezberdinak daude. Antolakuntza aritu nahi dutenek, adibidez, ostiraletan arratsaldeko 18:00etan kiroldegiko 3. aldagelara jo dezakete, bertan egiten

“Gure helburua herrian kirol eskaintza handitzea da, kanpora joan gabe bertan jokatu eta ikusteko aukera eskainiz”

Talde izatetik klub izatera pasazarete berriki. Zer suposatzen du horrek?

R.A.: Guretzako txapelketetan lehiatzeko eta diru-laguntzak jasotzeko beharrezkoa den tramitea besterik ez dugu bete. Jada taldea ofiziala dela suposatzen du.

E.M.: Datorren denboraldian (2017-2018) senior mailako 3. kategorian jokatzeke asmoa dugu. Umeekin oraindik ez dugu helburu finkorik ezarri.

I.J.: Izugarritzako lana egin dugu hau lortzeko eta gogo handiarekin jarraituko dugu aurrera. Aurtengoa lana egiteko urtea da, hasiera denak gogorrak izaten dira, baina ilusio handiz ari gara lanean.

Kluba nola dago egituratuta?

R.A.: Ofizialki zuzendaritza bat badago ere, modu asanblearioan gaude antolatuta, ostiraletan egiten dugun bileretan hitz egin, hausnartu eta hartzen ditugu erabakiak, baita lana banatu ere.

I.J.: Lantalde ezberdinak sortu ditugu, bakoitza ona den atalean edo tematika horri buruz ikasteko gogo duen taldean sartuz. Talde ezberdinak

dira: kirol lantaldea, ekintza lantaldea, komunikaziokoa, lan talde instituzionala... Aurrera begira lantalde gehiago irtengo direlakoan nago.

Saskibaloia ez da izan inoiz, herri honetan behintzat, kirol nagusia...

R.A.: Gure gizartean ere ez, ez du futbolak beste diru mugitzen. Beraz, jendearentzat ez da horren erakargarria. Telebistak garrantzi handia du kirolen zabalkundearen eta nahiz eta aukera dezente izan saskibaloia ikusteko ez da futbolaren mailara iritsi, ezta gutxiago ere.

E.M.: Futbola da azken urteetako aukera bakarra Deban talde kirolean aritzeko; horrek edozein gaztek saskibaloian, eskubaloian edo beste edozein kirolean parte hartzeko inguruko herrietara joan behar izatea eragiten du.

Egoera horri buelta emateko irtenbiderik badago?

R.A.: Gure helburua ez da kirol nagusia izatea, baizik eta debarrek aukera izan dezatela kirola praktikatu eta ikusteko. Kirol eskaintza handitu, kanpora joateko beharrik izan gabe

jokatu eta ikusteko.

E.M.: Irtenbideak bai, baina udaleko eta herriko eragileen laguntza eta inplikazioa ezinbestekoa dela iruditzen zait, ez baita erraza halako proiektu bat aurrera ateratzea. Oraingoz udala laguntzen ari da.

I.J.: Beste kirol batzuk egiteko aukera eskaini nahi da, beste herri batzuetan bezala. Elgoibarren, adibidez, futbolaz gain beste kirol asko daude: saskibaloia, atletismoa, eskubaloia...

Zuena da azken hitza. Irakurleentzako mezurik utzi nahi?

Herri guztia animatzen dugu parte hartzera eta taldeari laguntzera. Herri polit honetan beste kirol bat ezartzeko aukera izan dugu eta denon laguntzarekin aurrera joateko eta gauza politik egiteko gogoz gaude.

Debasket Saskibaloia Klubak eskerriak eman nahi dizkio *Berriketan* aldizkariari, gure proiektuari oihartzuna emateagatik, eta Debako herriari ere, orain arte emandako laguntzarenagatik.

Lanean jarraituko dugu herrian saskibaloia talde bat egoteko. Eskerrik asko.

baitira bilerak. Saskibaloian jokatu nahi dutenak, aldiz, zuzenean ostiraletako entrenamenduetara agertu daitezke. Nagusien taldea 19:00etatik 21:00ak arte entrenatzen da eta haurren 19:00etatik 20:00etara.

Saskibaloia klubarekin harremanetan jartzeko beste biderik ere badago: debasket@gmail.com posta elektronikoa eta Facebookeko orrialdea dauka.

“Datorren denboraldira arte Debasketeko kideok ez gara ofizialki lehiatuko. Beraz, saskibaloia atsegin duen edozein da ongietorria klubeko entrenamendu zein bileretara”, nabarmendu du Mugarzak.

Entrenatzaile bila

Taldeak batzuk dabilta, oraingoz, entrenatzaile lanetan -aurrez saskiba-

loian arituak eta “esperientzia apur bat” dutenak-. Alberto Gordoia eta Eñaut Mugarza (nagusien taldean) eta Aitor Ruiz de la Torre (haurren) aritzen dira horretan laguntzen. “Zoritxarrez, ez dugu entrenatzaile ofizialik”, aipatu du Arantzamendik, ez baita erraza saskibaloiko entrenatzaile aurkitzea. Hori dela eta, horretan lagundu dezaketen herritarrei gonbidapen edo deialdi zuzena egin diete taldekideek. “Norbaitekin entrenatzailearen ardura bere gain hartzeko prest balego, jar dadila gurekin kontaktuan emaila edo Facebooka erabilita, edo ostiraletan kiroldegitik agertuz. Ateak zabalik daude”, azpimarratu du Jimenezek.

Zergatik praktikatu saskibaloia?

Lehen urratsak eginda dituzten

honetan, bidea egiten jarraitzea dagokio orain Debasketi. Herriko jendea saskibaloian jokatzerari animatu nahi dute taldekideek. Kirol horren xarmaz galdetuta, zera dio Arantzamendik: “Bestelako kirol gehienak bezala, lagunak egiteko lagungarria da, jendea ezagutu eta momentu onak bizitzeko kirola da”.

Mugarzaren esanetan, “oso kirol dinamikoa” da, “azkarra eta ikusgarria. Kontzentrazio maila altua eskatzen du, eta talde jokoa du ardatz”. Horrekin bat dator Jimenez ere: “Taldea kirol bat da eta lagunekin ondo pasatzeko tresna bat ere bai. Kirol gogorra, baina aldi berean polita eta talde bezala jokatzeke aproposa. Kirol ikusgarria da, profesional mailan bereziki. Eta, gainera, giro ezin hobea dago”.

Oinezkoen segurtasuna hobetzeko lanak amaitu dituzte Mardari auzoa Itxasperekin lotzen den errepide zatian

Donejakue Bideak Mardari eta Itxaspe artean igarotzen duen errepide zatian oinezkoen segurtasuna hobetzeko lanak amaitutzat eman ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Bide Azpiegituren Sailak.

Errepide tarte zehatz horretan Donejakue Bideak N-634 errepidea zeharkatzera derrigortzen ditu erromesak, 570 metro inguru harekin paraleloan ibili eta gero, AP-8 autobidea gainditzen duen zubia zeharkatzera ere behartuz errepidearen bazterbidetik; orain arte inolako babesik gabe. Obra hauei esker, ordea, Santuaran ingurura hurbiltzean erromesek, oinezkoek eta txirrindulariek jasaten zituzten arriskuak nolabait txikitu egin direla jakinarazi du Foru Aldundiak.

Urbycolan enpresak egikaritu du proiektu hau eta bi hilabeteko epean bukatu ditu lanak. Ibilbidearen tarte handi batean euste sistemen bitartez babestutako oinezkoen pasabideak



(1,5 m-ko zabaleradunak) jarri dituzte, erromesek gurutzatu behar duten tokian irlatxo bat ezarri dute eta abiadura 50 km ordua mugatzen duen seinalizazio berria ipini dute.

Debalai elkartearen erosketa bonoak, agortuta

Bi egunetan agortu dira Debako Merkatari eta Ostalarien Elkarteak eskainitako 400 erosketa bonoak.

Bonoak herriko komertzioa sustatzeko eta indartzeko asmoarekin eskaini ditu Debalai elkarteak. 35 euroko bonoa ordaindu duten herritarrek 50 euroko balioa duten erosketak egin ahalko dituzte orain elkarteko kide diren saltokietan (33 dendatan eta ostalaritzako lau lokaletan). 15 euro aurrezteko aukera dute, hortaz.

Debalai elkarteak eta Udalak elkarlanean antolatutako ekimen berria da. 400 "Bono Deba" prestatu zituzten, herritar

bakoitzari gehienez ere hiru bono erosketako aukera emanez. Eta pare bat egunetan agortu dira ale guztiak.

Datorren urtarrilaren 6a bitartean erabili ahal izango dira bonoak. Debalai elkarteko edozein denda edo tabernatan balia daitezke, baina saltoki bakar batean gastatu beharko dira 50 euroak. Erosketak 50 eurotik gorakoak balira, hortik gorakoa erosleak diruz ordaindu beharko luke. Erositakoaren zenbatekoa 50 euro baino txikiagoa balitz, berriz, kopuru bien arteko aldea (sobera legokeena) gorde egingo litzateke hurrengo erosketa baterako -saltoki berean betiere-.

Ertzaintzaren gomendioak garajeetako lapurreten harira

Duela zenbait aste Deban izandako lapurreten harira, Ertzaintzak garajeetan segurtasuna bermatzeko hainbat aholku edo gomendio helarazi ditu ohar baten bitartez.

Garajea edozein motakoa izanda ere, autoak giltzaz itxita edukitzea eta giltzak eskuragarri ez uztea garrantzitsua dela

gogorarazi die herritarrei.

"Gomendagarria da -gaineratu du oharrean- garaje partikularretako itxitura sistemak sendotzea eta, ahal den neurrian, bertan baliozko ezer ez lagatzea, bereziki bizikleta profesionalak".



Gogoeta prozesua amaitu berri du Zuhatzak



Debarrak euskaraz barra-barra entzun nahi ditugu. Herriko euskaltzaileak Zuhatzaren baitan trinkotu eta saretuta ikusi. Eta etorkizunean euskararen erabilera handitzeko Zuhatza Euskara elkarteak zein funtzio, zein lan eta nolako antolaketa behar duen erabaki. Horiek dira, hitz gutxitan, bukatu berri dugun gogoeta prozesuaren erronka nagusiak.

Helburu horiek lortze aldera, hiru saio burutu ditugu Agirre jauregian, hamarnaka herritarren parte-hartzeare-

kin eta Euskaltzaleen Topaguneko Mikel Ozaita eta Jasone Mendizabal kideen laguntzarekin. Hausnartu, eztabaidatu, elkar ezagutu, jolastu, marraztu... aspertzeko tarte handirik ez dugu izan larunbat goizetako saioetan.

Prozesu parte-hartzaile honen bidez, aurrera begirako oinarri batzuk zehaztu nahi izan ditugu eta, hortaz, gogoeta egin ostean, egungo beharretara egokitutako urratsak ematea izango da hurrengo egin beharra. Ideiak eta proposamenak ez dira falta, ezta lan

egiteko gogoia ere. Bidea egiten asmatzea izango da orain gakoia, esan edo adostutakoari forma ematen jakitea, baina denbora apur bat ere beharko dugu aurrez guztia patxadaz aztertu ahal izateko.

Bien bitartean, eskerrik asko interesatuta agertu eta gurekin batera gogoeta prozesuan parte hartzearen. Etorkizunean ere bidelagun izan nahi zaituztegu.

Zuhatza Euskara Elkarte

%12,47ko igoera zabor tasetan

2016ko bigarren sei hilekotik aurrera zabor ordainagirik %12,47ko igoera jasango dutela jakinarazi du Debako Udalak.

Udalaren atari digitalean azaldu bezala, "igoera honek, guztira dagokionaren %50a suposatuko luke, beste %50a Udalak bere gain hartzen baitu. Hau guztia, GHKren (Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa) emaitza negatiboek eragindako kostuen eta zabortegi berrien (Meruelo-Kantabria)

kontratazioaren ondorioa da, kostu hauek udalek euren gain hartu behar izan baitituzte".

Adibide gisa, etxebizitza bati dagokion zabor tasaren zenbatekoa 36,57 eurokoa baldin bada (hiru hilabetero), 2016ko bigarren sei hilekotik aurrera aplikatuko den igoeraren ondorioz 41,13 eurokoa izango da hiru hilabetero ordaindu beharko duen kuota berria.

SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

ASKETA, S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 27/05/049
NIVEL 2

2016ko azaroa
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrear Sortua

BERRIKETAN GAZTEA

IRAKURKETA PLANA ABIAN DAGO MENDATA INSTITUTUAN

Ikastalde guztietan, urritik aurrera eta maiatza bukatu bitartean, mar-txan jarri da plana. Irakurketa plan hau ikasleek ikasi eta garatu behar duten irakurketa gaitasunaren lan-ketan oinarritzen da. Horixe da, hain zuzen ere, egitasmo honen atzean dagoen helburu nagusia: institutuko ikasleak, DBHko ikasketak amaitzean, haien adinari dagozkien eta haien giza garapenerako beharrezko-ak izango dituzten hizkuntza-komunikaziorako gaitasun-jabe izatea. Ikastetxeak, irakurtzeko ohitura eta zale-tasuna sustatu eta sendotzeaz gain, ikasleak irakurle gaituak bihurtzeko ahalegina egin behar du.

Horretarako, talde guztiek astean ordubeteko saioa izango dute, beraiek aukeratutako liburua edo irakur-gaia irakuri ahal izateko. Euskara eta gaztelaniazko gazte literaturako eta literatura tradizionalako lanak ira-



kurtzen dira, ikasleen adinerako eta intereserako egokiak direnak. Ikasgeletako liburutegiak ere osatu dira, ikastetxeak dituen materialekin (liburuak, aldizkariak, komikiak...) eta baita ikasleek etxetik ekarritako materialarekin ere.

Liburuak hautatzeko askatasuna izango dute ikasleek, irakurketa atsegina izateko eta eskatzen duen kontzentrazioa eta ahalegina probe-

txuzkotzat jotzeko.

Ikasturte amaieran, Irakurketa Planaren Batzordeak, lau irakaslek osatua (Amaia Illaramendi, Idoia Arrillaga, Tomas Ramos eta Izaskun Zugazagasti), planaren ebaluazioa egingo du. Bertan, ezarritako helburuen eta hauek lortzeko burutu diren jardueren eta ekintzen bete-tze-maila neurtuko du.

Irakurzen ondo pasatu eta irakurketaz gozatu!!

BA AL ZENEKIEN?

Katua edo txakurra baduzu, kontuz txokolatearekin!

Etxean txakur edo katuren bat baldin baduzu (edo biak!), jakingo duzu txokolatea ematea ez dela komenigarria. Izan ere, kalte egiten die. Bai, egia da guri ere, neurritz kanpo janez gero, ez digula mesede handirik egiten: kaloria asko dituzenez, betekada sortzen du, eta duen azukreak, berriz, txantxarra eragiten du. Hobe, beraz, noizean behin bakarrik jatea.

Edozein modutara, txakurren-tzat eta katuentzat are kaltegarriagoa da: toxikoa da. Txokolate asko jateak komara eraman ditzake, eta baita heriotzera ere. Normalean ez dute hainbeste



jango, lasai, baina pixka bat jateak ere ez die inolako mesederik egiten, beherako larria eragiten baitie. Hain zuzen, larritasuna jaten duten txokolate kopuruaren eta motaren arabera da: zenbat eta gehiago jan, eta zenbat eta beltzagoa izan txokolatea, orduan eta okerrago.

Egia esan, katuek ez dute gustuko txokolatea; beraz, zaila da katu bat horrekin gaixotzea. Txakurrekin, ordea, kontuz ibiltzea komeni da, txokolatezaleak baitira. Horrenbestez, ondo gorde txokolatea, eta ez utzi zure animalia maiteen eskura (edo ahora, hobeto esanda).

ELKARRIZKETA

MIREIA LILI

“Oso jatorrak dira kide guztiak eta besoak zabalik hartu ninduten”



Oraingo honetan Mireia Liliarekin elkartu gara elkarrizketa bat egiteko. Mendatako ikasle honek eskubaloian jokatzen du eta berak praktikatzen duen kirolari buruzko galdera batzuk egin dizkiogu.

Zergatik aukeratu zenuen eskubaloian jokatzea?

Deban futbola zegoelako eta ez zitzaidalako gustatzen; beraz, eskubaloian jokatzen hasi nintzen.

Zenbat urterekin hasi zinen?

Orain dela urte bat hasi nintzen.

Zer taldetan jokatzen duzu? Eta zer postutan aritzen zara?

Sanlon taldean (Elgoibarren) nabil. Normalean “pibot” postuan jokatzen dut.

Eskubaloiaz gain, beste kirolen bat egiten duzu?

Ez, hori bakarrik.

Zure taldeko kideekin ondo konpontzen zara? Eta entrenatzailearekin?

Kideekin bai. Eta orain entrenatzailearekin ere bai, baina iaz ez ginen elkarrekin ondo konpontzen.

Noiz joaten zara entrenatzera? Zenbat denboratakoak dira entrenamenduak?

Astelehen, asteazken, ostegun edota ostiraletan joaten gara. Ordubete eta erdikoa izaten da saioa, gutxi gorabehera.

Euskadi mailan jokatzen al duzu?

Ez, Gipuzkoan bakarrik.

Lagunen batekin joaten zara ala bakarrik?

Naroa Etxeberriarekin joaten naiz.

Azken partidari zer egin duzue?

Irabazi egin genuen, 10 eta 19.

Amaitzeko, kontaktu, hasieran kosta egin zitzaizun taldean moldatzea?

Hasieran pixka bat bai, baina ez asko, oso jatorrak dira kide guztiak eta besoak zabalik hartu ninduten.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

Oraingo honetan 3. mailako ikasleei egin diegu inkesta. Eskolaz kanpo egiten dituzten ekintzei buruzko galderak egin dizkiegu:

- 1.- Zerbait egiten al duzu eskolatik kanpo? Zer?
- 2.- Zenbat denbora eskaintzen diezu ekintza horiei?
- 3.- Denborarik ba al duzu ikasketetarako?
- 4.- Beste ekintzaren batean izena eman nahiko zenuke?
- 5.- Soberan duzun denborarekin zer egiten duzu?
- 6.- Asteburuetan zer egiten duzu?



**Malen
Arakistain**

- 1.- Bai, futbola, krosfit eta spining.
- 2.- Futbolari 2 egunetan ordu bat eta erdi, eta egun batean ordu bat. Astean behin joaten naiz krosfit eta spinningera, ordubetez.
- 3.- Bai.
- 4.- Ez.
- 5.- Telebista ikusi eta lagunekin egon.
- 6.- Futbol partiduak eta lagunekin egon.



**Ander
Azpiazu**

- 1.- Bai, krosfit, spining eta jolasak.
- 2.- Astean behin, bakoitzari ordu-bete.
- 3.- Bai, asko.
- 4.- Ez.
- 5.- "One piece" ikusi.
- 6.- Lagunekin egon.



**Arantxa
Odriozola**

- 1.- Bai, akordeoia, dantza, spining eta krosfit.
- 2.- Astean bitan, akordeoiari hiru ordu laurden. Astean hiru aldiz noa dantzara, ordu bat eta erdiz, eta astean behin spining eta krosfit (ordubete bakoitza).
- 3.- Bai.
- 4.- Ez.
- 5.- Etxeko lanak, lagunekin egon eta telebista ikusi.
- 6.- Lagunekin egon.



**Maider
Corrius**

- 1.- Bai, akordeoia, pianoa eta dantza.
- 2.- Pianoari eta akordeoiari hiru ordu laurden, dantzari ordubete eta erdi...
- 3.- Bai.
- 4.- Ez.
- 5.- Telebista ikusi eta lagunekin egon.
- 6.- Lagunekin egon.



Pablo Ron

- 1.- Bai, ingelesa eta futbola.
- 2.- Astean bitan, futbolari ordu bat eta erdi. Astean bitan ordubete ingelesari.
- 3.- Bai.
- 4.- Bai.
- 5.- Lagunekin geratu, mobilean aritu, *clash royale*an jolastu, telebista ikusi eta bizikletan ibili.
- 6.- Partiduak ikusi eta lagunekin egon.



**Jon
Txurruka**

- 1.- Bai, ingelesa, tronpeta eta igeriketa.
- 2.- Astean bitan ingelesari ordubete, astean behin tronpetari hiru ordu laurden eta astean bitan igeriketari beste hiru ordu laurden.
- 3.- Bai.
- 4.- Ez.
- 5.- "One piece" ikusi, Gaztelekura joan eta uretara sartu.
- 6.- Berdina.

EGILEAK: Jone Gomez, Ibai Bernal, Irune Ruiz eta Maite Ramos

DENBORA-PASAK

HIZKI-ZOPA

Eguraldia

A	Z	T	I	A	K	E	D	A	T
U	A	A	X	L	F	E	U	X	U
S	R	E	Q	A	J	C	I	X	Z
T	R	Z	L	I	K	N	T	M	T
I	U	E	U	N	G	Q	R	F	I
E	L	H	D	O	R	Z	U	R	K
D	E	K	R	T	A	Q	M	E	Z
O	M	R	M	U	B	A	O	S	U
H	A	U	D	T	D	Q	I	K	G
S	A	R	R	A	O	I	A	O	E

arraoia
eguzkitzu
ekaitza
elurra
fresko
hezea
hodeitsu
lainotuta
trumoia
txingorra


ERAGIN BURUARI

7	-	5	=		+		=	9
-		+		+		+		-
	+	2	=	7	+		=	8
=		=		=		=		=
2	+		=	9	-		=	
+		-		-		-		+
4	+		=		+	1	=	8
=		=		=		=		=
	-	4	=		+	7	=	

SUDOKUA

5	3			7				
6			1	9	5			
	9	8					6	
8				6				3
4			8		3			1
7				2				6
	6					2	8	
			4	1	9			5
				8			7	9

LABIRINTOA



laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



prentsa tailerra 2016-2017

Urko Azkoitia
Maria Perez
Maite Ramos
Nerea Sanz
Intza Sudupe
Eneko Arriola

Jone Gomez
Janire Lopetegi
Eider Perez
Iruñe Ruiz
Maider Almortza
Ibai Bernal

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

ABENDUAK 2, OSTIRALA

-21:00. **Mariatxi Gaua**, Bikain jatetxean. Txamukos taldeko mariatxi naparrak izango dira, Beñat eta Fernando. Afaria 15 euroan (izen-ematea 943 19 93 70 telefonoan). Itziarko Auzo Udalaren ekimenez antolatuta.

ABENDUAK 3, LARUNBATA

-Asanblada Eguna, Debako Gazte Asanbladaren XVI. urtemugaren harira antolatuta.

-Euskararen Nazioarteko Eguna. Ikus Deban antolatutako egitaraua kontrazalean.

ABENDUAK 4, IGANDEA

-12:00. **Txantxariak**, familientzako kantu-jolasak plazan. Euskararen Nazioarteko Egunaren harira antolatuta.

ABENDUAK 9, OSTIRALA

-22:00. **Espuela Nahi**, bertsoa eta antzerkia umoretik. Jon Martin eta Xamoa bertsolariak, eta Andion Iturbide eta Eñaut Gantxegi antzerkilariak. 21:00etan taloan ostan, 22:00etan izango da antzezpena. Itziarko Auzo Udalaren ekimenez

antolatuta, Izarraitz Bizirik elkartearen laguntzaz. Lasturko tabernan.

ABENDUAK 10, LARUNBATA

-Gazte Eguna (Debako Gazte Asanbladaren XVI. urtemugaren harira antolatuta).

ABENDUAK 16, OSTIRALA

-22:00. **Kontzertu akustikoa: Txuma Murugarren**. Burugorri gainean. 5 euro. Itziarko Auzo Udalaren ekimenez antolatuta.

ABENDUAK 18, IGANDEA

-10:00. **Nordic Walking**. Hastapen ikastaroa. Izen-ematea: turismo bulegoan edo andoni@ekinkirola.com helbide elektronikoa (20 euro).

-11:00. **Manuel Mateosen oroimenezko IV. Krosa**, Xtreme Kirol Taldearen ekimenez. Parte-hartzaileek 6,5 km edo 10,30 kilometroko ibilbidea egiteko aukera izango dute. Inskripzioak egiteko, kontsultatu www.herrikrossa.com ataria.

-**Ipuin kontaketak**. Agirre jauregiko ispi-luen gelan. 17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/ 18:00etan 7-12 urtekoentzat.

XI. Tene Mujika Beka

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak XI. Tene Mujika beka sortu dute, 6.000 euroko diru-laguntza emango duena. Lanak aurkezteko azken eguna: 2016ko abenduaren 11. Informazio gehiagorako, kontsultatu www.deba.eus.

Animadeba Gortina lehiaketa

Gortina lehiaketaren VIII. edizioa antolatu du Debako Udalak eta lanak aurkezteko epea abenduaren 9an bukatuko da. Informazio gehiagorako, jo aldizkari honetako 9. orrialdera edota Debako Kultura Sailera.

Ikastaroak

KZguneak arratsaldeko ordutegia izango du abenduan (16:00etatik aurrera). Hainbat ikastaro eskainiko dira: Instagram (argazkiak atera eta partekatu), Marka pertsonala eta LinkedIn, Twitter... Informazio gehiagorako: www.kzgunea.net edo 943 02 36 29.

Ostolaza Udal Liburutegia

Ostolaza Udal Liburutegia itxita egongo da abenduaren 6an, 8an eta 9an. Abenduaren 5ean (astelehena) eta 7an (asteazkena), berriz, irekita egongo da.





www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/AZ



ZAINTZAKO BOTIKA
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **abenduak 9, 10, 11, 19, 20, 21, 22.**

Burgoa Zuazo: **abenduak 5, 6, 7, 8.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:
ZALDUEGI: abenduak 10 eta 17

BURGOA ZUAZO: abenduak 3
9:30 - 13:30



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



English Academy
NORTH STREET ENGLISH

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482



etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atariadeba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29




ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN


Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzza

943 191 383
berriketan@zuhatzza.com

**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA




GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Euskararen Eguna

Abenduak 3, larunbata

Eguerdian: Kanean Kantuz kalez kale.

18:30: Jolasak, tailerrak, musika... Kolore Anitz Aisialdi Taldearen eskutik. Plaza berrian.

19:00: Euskaraokea Gaztelekuan. Helduentzako ipuin kontaketa, Beatriz Egizabalen eskutik. Maxi tabernan.

Abenduak 4, igandea

12:00: TXANTXARIAK. Familientzako kantu-jolasak. Plazan.

EUSKARAZ

bizi

nahi dut

EUSKARAK 365 EGUN!!